



Diseinua, moda guztien gainera

Timeless, Massimo Vignelli

Non: Okendo Kultur Etxea, Donostia.

Noiz arte: apirilak 18. **Sarrera:** doan.

NOLA DIOZU DUELA IZENA TIPOAK? “Vignelli”, erantzun du diseinu mundua pasioz bizi duen etxeke informazio iturriak. “Massimo Vignelli”, bi *eseak* eta bi *eleak* ondo ahoskatuta. Izen handia baita, baina, zer den gaiaz deus ez jakitea, ez nuen ezagutzen. Iaz falta-zen mundutik Italian jaio –Eibarren Errepublikaraldarrikatu zen urte berean– eta handik urte batzuetara New Yorkek ofizioaren gailurreraino eraman zuen diseinatzailea. Donostia Kulturak eta Husmee estudioak omendu dute Groseko Okendo Kultur Etxean, diziplinaren ezagutza handirik izan gabe ere gozatzeko eta pentsatzeko ematen duen erakusketarekin.

Haria Vignelliren jarraitzaileen lanek jartzen dute, mota guztietakoak, trebatzen ari direnen emaitzetatik –tartean Irungo Kunsthal diseinu eskolako ikasle baten afixa; erakusketan ez da egilearen izen-abizenik ageri, barka–, izen handiko diseinatzaileetaraino –Javier Mariscal, 1992ko Joko Olinpikoetako Cobi maskotaren autore intelektuala–. Haiek eramango zaituzte aretoan barrena, han eta hemen kokatutako zenbait material eta lekua bitan banatzen duen panel

nagusiko aipuz lagundurik; gehiegikeriarik gabe, modu eraginkorrean prestatuta.

“Bere filosofia hori zen”, jarraitzen du informatzen familiak, “edozer egiten duzula ere, ulergarria izan dadila”. Eta iraunkorra. Ondo eraikitakoa. Semantika, sintaktika eta pragmatika. Asko ari gara ikasten kolpean, segi, segi: esplikatzen digu asko teorizatu zuela diseinuaren zereginaz; eta, inportanteagoa, ondo teorizatu zuela. *The Vignelli Canon* liburuxkan bilduta daude buru-ariketa horien emaitzetako batzuk –ingelesez dakitenentzat irakurgai www.vignelli.com/canon.pdf helbidean–.

Aurreiritzi batzuk gainera kenzeko behintzat balio du hurbiltzeak. Sorkuntzaren esparru honek modarekin eta merkatuaren aldiak aldiko kapritxoekin zerikusia duela uste baduzu, adi Vignelliren esaldi honi: “Baztertu egiten dugu zaharkitzapenaren kultura, hondakinen kultura, iraupen gutxi duena gurtzea. Higuintzen dugu aldi baterako irtenbideen eskaria, energia eta kapitala alferrik gastatzea berritasunaren mesedetan”. Iraun dezake diseinuak betirako? Erakusketari hilabete geratzen zaio. Ateak itxi baino egun bat lehenago, apirilaren 17an, Beatriz Cifuentes eta Yoshiki Waterhousen hitzaldi batek aseko du diseinuaren *massimoaz* jakin-mina dutenen gosea. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena